

Antibiotikoekiko erresistentea den tuberkulosiaren bilakaera historikoa

Tuberkulosia eragiten duen bakterioaren aldaera gogorrenetako baten bilakaera historikoa aztertu du nazioarteko ikerketa-talde batek, haien DNAtik abiatuta. Ikusi dute bakterio horien populazioaren bilakaerak bat egiten duela gizateriaren historian izan diren hainbat gertakari garrantzitsurekin. [Nature Genetics aldizkarian argitaratu dute lana.](#)


Mycobacterium tuberculosis bakterioaren Beijing lerroa arazo gehien sortzen dituenetako bat da, beste lerro batzuen aurka eraginkorrek diren antibiotikoekiko erresistentea baita. Lerro horren eboluzioa ikertzeko, 99 herrialdetan jasotako 5.000 lagin aztertu dituzte. Eta ondorioztatu dute lerroa duela 6.600 urte inguru sortu zela, Txinako ipar-ekialdean. Data horrek bat egiten du Yangtze ibaiaren haranean arroza lantzen hasi zireneko lehen aztarna arkeologikoekin. Hain zuzen ere, aurreko [beste ikerketa](#) baten arabera, gaur egungo *M. tuberculosis* guztien arbasoaren hedapena ere nekazaritza-



M. tuberculosis bakterioaren Beijing lerroa arroza landatzen hastearekin batera hedatu zen Txinako ipar-ekialdean, duela 6.600 urte inguru. ARG.: BRAD COLLIS/CC-BY.

ren hasierarekin lotuta dago (Mesopotamia eta Niloren delta, duela 10.000 urte). Ikertzaileen arabera, Zetaren Bideak lagunduko zuen Beijing lerroko lehen bakterio haiek hedatzen, eta baita gero izandako txinatarren beste emigrazio-bolada batzuek ere. Bestalde, azken 200 urteetan lerroaren populazioak izan dituen gorabeherek bat egiten dute historiako gertakari garrantzitsuekin. Esaterako XIX. mendearen hasieran nabarmen gora egiten du bakterio-populazioak, eta horrek lotu-

ra zuzena izan lezake, ikertzaileen ustez, industria-iraultzaren eraginez hiriek izandako hazkunderarekin. Gauza bera gertatzen da XX. mende-hasieran, Lehen Mundu Gerraren garaian. Gero, berriz, jaitsiera bat dator, 1960ko hamarkadan antibiotikoak erabiltzen hastearekin bat egiten duena. Eta azkenik, 1980ko hamarkadaren bukaera eta 1990ekoaren hasierako beste igotze bategi bat egiten du hiesaren hedapenarekin eta Sobietar Batasunaren gainbeherarekin. ●



ARG.: MERKER ET AL., 2015.